

«Feliz Navidad...»

Saioa Iraola

Bideko Ama Birjina ospitaleko sar-
rerrara iritsi naiz, eta medikua-
rengana igo aurretik kanpoaldean
zigarro bat erretzea pentsatu dut.
Ate nagusiaren alde batean jarri naiz, eta
beste aldean emakume gazte bat dago, ate-
aren kontra-kontran minuturo jendearen
sartu-aterean esaldi hau errepikatuz: «*Fel-
liz Navidad, una ayuda por favor*».

Ospitale atarian, sarreran, eskaileretan,
itxarongelan eta abarretan elkar gurutza-
tzen dira pausoak, gorputzen joan-eto-
rriak ohikoak eta ugariak dira; baina, sa-
rrerako atean, begiradetan topo egiten ez
duten hitzak ikusi eta sentitu ditut. Zer-
gatik ez diogu begietara begiratzen ospi-

tale atarian eskean ari den emakume gaz-
teari? Zeren ispilu da? Zer mugitzen digu
gure barrenean? Kontzientzian? Ezezkoa,
baiezkoa edo irribarre bat eskaintzeko
ere gai ez gara gai sentitzen askotan (ni
neu ere ez).

Ikusezina dirudi jendearen begietara,
ikusezina den gorputz bat, herritar bat,
errealitate bat. Austeritate politikak,
murrizketak, krisiak... eraginda laguntza
eskean, negu hotzean lo egiteko leku go-
xo eta bero baten eskean gero eta herri-
tar gehiago ikusten ditugu kalean, Eros-
kiko kanpoaldean, elizan, banketxeetan
zein aterpetxeetan. Laguntza eskatzea,
laguntza ekonomikoa eskatzeaz gain, ba-

da babesa, goxotasuna, berotasuna, begi-
rada bat edo irribarre bat elkarri eskain-
tzea.

Laguntza eskatzea, hainbat modutara
ikus daiteke; hots, penarekin, errudunta-
sunarekin, lastimarekin lotuta edota jen-
darte egitura iraultzeko errealitate sozio-
ekonomiko gisa. Herritar ororentzat
politika publiko duinak garatzeko eskaera
zaharrek inoiz baino gaurkotasun handia-
goa dute. Elkartasunetik eraikitzea eta el-
kar aitortzetik abiatzea beste aukerarik ez
zaigu geratzen. Kostata bada ere, pertso-
nok elkarren premia, elkarren beharra du-
gula jabetzea beldurgarria bezain espe-
rantzagarria baita. •

Galaxia bat Bilbon

Joxean Agirre

Behinola James Irwin astronautak
esan zuen Lurrak Eguberritako
zuhaitz baten antza duela espazio-
ra bidean zoazenean, poliki-poliki
kanika urdin bilakatzen den arte. Interna-
tional Space Station delakotik bidaltzen di-
tuzten bideoetan bederen badu egongela
bazterrean jarrita eduki dugun zuhaitzaren
antzik, hiri handi bakoitzak argi distira
ikusgarriak eskaintzen baititu.

Gaur Bilboko manifestazioak emango
duen irudi argitsuaz ohartuko dira segu-
ruenik lur azaletik 400 kilometrora dau-
den NASAko astronautak. Baina kontua da
Madrildik irudia ikusi eta interpretatzeko
gai izango ote diren.

Askotan izar bakanei arreta jartzeko joera
izaten dugu. Baina gizartean apenas ema-
ten den izar bakanik. Jenioak ere, diotenez,
binaka jaiotzen dira. Oteizak Txillida behar
zuen, Retegik Galarza, Basarrik Uztapide
edo Atxagak Saizarbitoria edo alderantziz.
Bata bestearen ahulguneetatik elikatzen da,
elkarren *sparring* dira, elkarren ispilu.

Parekideak diren izar horiek bezain ha-
rrigarriak dira gizartean ematen diren
konstelazio txikiak.

1649an, esate baterako, adibide urrun
bat aipatzearen, Amsterdamen Descar-
tes eta Rembrandt ikus zitezkeen kale
nagusitik paseatzen, eta atzetik 17 urteko
bi gaztetxo, Vermeer eta Spinoza. Gisako
konstelazio asko eman da historian ze-
har. 6oko hamarkadan Parisko Falstaff
edaritegian Beckett, Sastre, Godar eta ga-
raiko beste hainbat izar elkartzen ziren
garagardoa edateko. Etxetik hurbilago,
joan den mendearen lehen zatian triki-
tiaren historia markatu zuten lauzpa-
bost izen bildu ziren Azkoitiko Martirie-
ta auzoan. Imuntzo, Epelde, Egurrola,
Zendoia eta ezagunagoak ziren beste
hainbat bizi ziren auzo horretan, non La-
xaro Azkunek berriki atera duen Zen-
doiari buruzko liburuan “Firu-firu baila-
ra” deitzen dion.

Azpeitia eta Errezil artean, Txillarramen-
din, kilometro bakan batzuen tartearekin

Joxe Lizaso, Txapel, Zepai eta Iturzaeta ber-
tsolariak bizi ziren urte bertsuetan eta ere-
mu horretan zegoen Baserriren jaiotetxea
ere.

Joseba Zulaika antropologoak Bilbori bu-
ruz (bidenabar bere autobiografia ere egi-
ten du) argitaratu duen “Vieja luna de Bil-
bao” liburuak ETaren lehen belaunaldia
aipatzen du. Eskolapioetatik atera eta
Deustun edo Sarrikon ikasitako ikasle
ohiak dira gehienak.

Bazen horrelako beste konstelazio bat
Nafarroako Gaintza, Azkarate eta Arriberen
artean, euskal artistek osatua. Zumeta, Go-
rriti, Ramon Cabestany, Ortiz de Elgea eta
beste hainbat bizi ziren han. Harrigarria da
halaber gaur Bera, Zarautz eta beste zen-
bait herritan ematen den musika taldeen
ugaritasuna.

Baina konstelazioek adina harridura sor-
tzen digute galaxiek, helburu bat lortzeko
asmoarekin biltzen diren jende uholdeek.
Bilboko gaur halakoa izatea espero
dugu. •